



DEIALDIA

Seafood Expo Global 2016

Brusela (Belgika)

Egunak: 2016ko apirilak 26etik 28ra.

Lekua: Parc des Expositions,
BRUSELA.

Maiztasuna: Urtean behin.

Bisitarien profila:
Arrain industriako profesionalak.

Izena emateko epea:
2015eko azaroak 30 arte
(astelehena).

Azokaren web orria:
www.seafoodexpo.com

Informazio gehiago: Tel.: 943 000 299

Jon Zabaleta: jzabaleta@camaragipuzkoa.com

DEIALDI HONETAN:

Azokaren izaera

Parte hartzeko baldintzak

Parte-hartze eredia eta prezioa

Eusko Jaurlaritzarekin parte hartzea

Eskainitako zerbitzuak


Izen-emate fitxa



Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak Euskal Elikadura Industria kanpoan sustatzeko ekintzen barruan, euskal enpresen parte-hartze multzokatua antolatu du Seafood Expo - Global 2016 edo European Seafood azokan.

Azoka **Bruselan** izango da, **2016ko apirilaren 26etik 28ra**.

Seafood Expo Global 2015 azokaren izaera

[aurkibidera itzuli](#) 

Erakusketa eremua: 34.000 m²

2015ko erakusketariak: 1.761 enpresa

2015ko bisitariak: 144 herrialdetako 26.000 profesionalon

Azokaren web orrialdea: www.seafoodexpo.com

Arraina komertzializatzen duten sektoreentzat da azoka, munduko arrain azoka garrantzitsuena. Urtean behin izaten da deialdia, arrain munduaren sektoreko mota guztietako profesionalentzat. Arraina prozesatzen, hozten eta izozten duten zein logistika ekipoentzako Seafood Processing Europe (SPE) azokarekin batera izango da.

Hona hemen ordezkaturako sektoreak: arrain freskoa, izoztua, kontserbak eta arrain prestatua/prozesatua, handizkariak, inportatzaileak, esportatzaileak, transformatzaileak, fabrikatzaileak, banatzaileak, akuikultura, hozkailuak, laguntza-industria (hotza, enbalajeak, plastikoak eta abar), eta makinak.

Azoka honetara joaten diren profesionalak munduko arrantza, transformazio, elikadura industria eta banaketa-kanaleko profesionalak (inportatzaileak/esportatzaileak, banaketa handia, eta HO.RE.CA kanaleko espezialistak) dira.





Parte-hartze baldintzak

[Joateko konpromisoa](#)

[Euskal Herrian egindako produktuak](#)

[Ebaluazio-inkesta](#)

Egoitza soziala Euskal Herrian duten eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailaren Elikadura Industrien Erregistroan inskribatuta dauden **ekoizpen-enpresek** bakarrik parte har dezakete ekintza honetan.

Azoka baino lehen:

- Enpresako ordezkari bat joateko eta kuota ordaintzeko konpromisoa; beraz, **Euskadiren pabiloian sartu izana jakinarazi eta gero ezin da ekintzan baja eman.** Ezinbesteko kasuetan soilik baloratuko ditu Eusko Jaurlaritzak enpresak emandako arrazoiak eta ordaindutakoaren zati bat itzultzea aztertu.
- Enpresek derrigor egon behar dute bertan muntaketa-egunean, adierazitako orduan produktuak jasotzeko eta erakusmahaiak azokaren inaugurazioa hasi baino dezente lehenago dekoratzeko.

Azokak iraun bitartean:

- Azokak iraun bitartean erakusmahai egunero eta ordutegi osoan zainduko da.
- Azoka amaitutakoan, produktu guztiak behar bezala jasoko dira eta erakusmahaiaren elementuak jasotako baldintzetan itzuliko dira.

Azokaren ondoren:

- **Ebaluazio inkesta bete**, azokatik irten baino lehen eskura entregatu beharrekoa.

Parte-hartze eredua eta prezioa

1 MOTAKO enpresen kuota = 1.791 € + BEZa (%21)

2 MOTAKO enpresen kuota = 2.985 € + BEZa (%21)

3 MOTAKO enpresen kuota = 4.179 € + BEZa (%21)

Parte-hartze eredua

2016ko edizioan, parte hartzeko interesa duten sektoreko enpresak hartuko dituen pabiloi bat edukiko du Eusko Jaurlaritzak bertan.

- **BANAKAKO erakusmahai.**
- **Erakusmahai BIKOITZA.**

Parte-hartzearen prezioa

Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen eta Lehiakortasun Sailak diru-laguntza emango du, eta enpresek ondoren adierazitako diru-kopurua ordaindu beharko dute:

Banakako standa

- **1 motako** enpresaren kuota = **1.791 € + BEZa**
- **2 motako** enpresaren kuota = **2.985 € + BEZa**
- **3 motako** enpresaren kuota = **4.179€ + BEZa**

Stand bikoitza

- **1 motako** enpresaren kuota = **3.582€ + BEZa**
- **2 motako** enpresaren kuota = **5.970€ + BEZa**
- **3 motako** enpresaren kuota = **8.358€ + BEZa**

Parte-hartze kuota ordainketa bakarran egingo da. Faktura eskaera onartu ondoren egingo da.

Enpresen sailkapena:

- **1 motako enpresa** = EAEko lehen sektoreko produktuak eraldatzen eta komertzializatzen dituen enpresa.
- **2 motako enpresa** = Tokiko produkturik ez dagoelako, EAEko lehen sektoreko produkturik eraldatzen edo komertzializatzen ez duen enpresa.
- **3 motako enpresa** = Tokiko produkturik egon arren, EAEko lehen sektoreko produkturik eraldatzen edo komertzializatzen ez duen enpresa.

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

[Izen-emate fitxa, behar bezala beteta](#)

[Ordainketa-egiaztagiria](#)

[Izena emateko azken eguna: 2015ko azaroaren 30ean](#)

Leku-kopurua mugatua denez, parte hartu nahi izanez gero izen-emate fitxa bete eta lehenbailehen bidali **943 000 267 fax** zenbakira Jon Zabaletaren izenean, edo **jzabaleta@camaragipuzkoa.com** helbide elektronikora.

Enpresa parte-hartzaileen hautaketa izen-emate agirien jasotze hurrenkeraren arabera egingo da. Zure eskaera aitzat hartzeko, honako agiri hauek bidali behar dituzu, posta elektronikoz, adierazitako helbidera:

1. Honekin batera doan izen-emate fitxa, behar bezala beteta.

Fitxa horretatik hartuko dira azokako katalogo ofizialerako eta gainerako promozio-ekintzetarako datuak.

2. Lekuaren erreserbaren ordainketa-egiaztagiria (BEZa barne).

Lekuaren erreserbaren ordainketaren egiaztagiria jasotakoan egingo da faktura.:

Kontzeptua: "Enpresaren izena + SEAFOOD 2016".

Kontu zenbakia: ES82-2095-5206-04-1061020862 (KUTXABANK)
GIPUZKOAKO BAZKUNDEAREN izenean.

Izena emateko azken eguna: 2015ko azaroaren 30ean.

[jarraitu](#) 

Eusko Jaurlaritzarekin parte-hartzea

GIPUZKOAKO BAZKUNDEAREN Finantza Sailak **izena emateko azken egunetik 15 egunera bidaliko du dagokion zenbatekoaren faktura.**

GARRANTZITSUA:

Eskatutako agiriak bidaltzeak EZ DAKAR enpresak Eusko Jaurlaritzaren pabiloian parte hartzea, gutxieneko enpresa-kopuru bat beharko baita parte hartzeko. Gipuzkoako Ganberak izen-ematea onartu den edo ez jakinaraziko du.

FAKTURA JASO ONDOREN, HAU DA, EUSKAL HERRIKO PABILOIAN SARTU IZANAREN JAKINARAZPENA, PARTE HARTZEARI UKO EGITEN DION ENPRESAK ORDAINDUTAKO GUZTIA (%100) GALDUKO DU. Ezinbesteko kasuetan bakarrik egongo da enpresak emandako arrazoiak aztertze eta ordaindutakoaren zati bat itzultzeko aukera.

Honako kasu hauetan bakarrik itzuliko da enpresek ordaindutakoa:


- Enpresa erakusketariak eskatutako espazioa Azokaren antolatzaileek Eusko Jaurlaritzari emandakoa baino handiagoa bada, enpresa hautatuak eskubidea edukiko du aldez aurretik ordaindutako izen-emate kuota itzul diezaioten.
- Halabeharrez edo parte-hartzaile kopuru nahikoa ez edukitzeagatik, Eusko Jaurlaritzak azokan parte hartzeari uko egiten badio, enpresek eskubidea edukiko dute ordaindutako guztia (%100) itzul diezaioten.

BIDAIA ETA OSTATUA

Ekintza honetan **ez daude sartuta** joan-etorri eta ostatu gastuak.

Nolanahi ere, Saila enpresen zerbitzura dago, enpresa erakusketariak hala nahi badu bidaia eta ostatua koordinatzen laguntzeko.

Eskeinitako zerbitzuak

[aurkibidera itzuli](#) 

- [1\) Lekuren kontratazioa](#)
- [2\) Pabiloiaren mantentzea](#)
- [3\) Pabiloiaren dekorazioa](#)

Eusko Jaurlaritzak ondorengo zerbitzu hauek eskainiko ditu:

[Lekuaren kontratazioa](#)

Sustapen leku batekin parte hartuko da, enpresa erakusketari bakoitzarentzako banakako stand pertsonalizatuetan banatuta.

[Pabiloiaren mantentzea](#)

Eusko Jaurlaritza arduratuko da pabiloia mantentzeaz, oro har, eta beharrezko zerbitzuak kontratatzeaz (ura, argindarra, garbitasuna,...).


Potentzia-muga batzuk egongo dira stand bakoitzeko, eta erakusketariaren batek muga horiek gaindituz gero, diferentzia ordaindu beharko du.

[Pabiloiaren dekorazioa](#)

Standaren dekorazioa eta oinarrizko altzariak uniformeak izango dira Euskadiko pabiloiko erakusketari guztientzat. Banakako standarekin parte hartzen duten erakusketariak ondorengo hauek edukiko dituzte:

- Mahai bat eta lau aulki
- Mostradore bat
- Enpresa erakusketariaren errotulua
- Konexio elektrikoa
- Biltegia
- Bere produktuak ikusgai jartzeko hotz-bitrina behar duen enpresarentzat, horren alokairua kontratatuko da (hozte edo izozte bitrina).

Eskainitako oinarrizko altzarien inguruko edozein aldaketak kostua aldatzea edo garestitzea badakar, enpresa erakusketariak ordaindu beharko du.

[jarraitu](#) 

Eskeinitako zerbituak

[aurkibidera itzuli](#)

[4\) Hotz-kamerak](#)

[5\) Salgaien garraioa](#)

[6\) Katalogo ofizialean sartzea eta bilera-egendetan parte hartzea](#)

Hotz-kamerak

Eusko Jaurlaritzak koordinatuko du hotz kameren kontratazioa. Zerbitzu horren finantzaketa erakusketari bakoitzaren kontura izango da.

Salgaien garraioa

Eusko Jaurlaritzak erakusgai jarriko diren salgaien baterako bidalketa antolatuko du, garraiolari ofizialak adierazitako lekutik.

Zerbitzu horren kontratazioa banakakoa izango da, eta garraio enpresak zuzenean fakturatuko dio zerbitzua erabiltzen duen erakusketari bakoitzari.


Katalogo ofizialean sartzea eta bilera-egendetan parte hartzea

Eusko Jaurlaritzak beharrezko izapide guztiak egingo ditu Euskadiko pabiloiko enpresa parte-hartzaile guztiak egoki islatuta egon daitezen azokako katalogo ofizialean. Horretarako, izen-emate orrian emandako informazioa erabiliko da.

Informazio hori erabiliko da, halaber, atzerriko erosleekin bilera-egendetan parte hartzeko interesa adierazi duten enpresak hautatzeko.

Izen-emate fitxa

SEAFOOD EXPO GLOBAL 2016

aurkibidera itzuli 

Eusko Jaurlaritzaren pabiloian egon nahi dut, SEAFOOD EXPO GLOBAL 2016, azokako erakusketari, ondorengo baldintza hauetan:

Banakako erakusmahaia

Erakusmahaia bikoitza

**Oharra: erakusmahai bikoitza ematea edo ez enpresa parte-hartzaile kopurura baldintzatuta egongo da.*

Enpresaren izena, KATALOGO OFIZIALERA KO:

Oharra: izen hau erabiliko da sustapen-ekintza guztietan (ERAKUSMAHAIAREN ERROTULUAN barne).

Enpresaren izen ofiziala:

I.F.K.:

Nek. eta Elik. Ind. Erregistroa (R.I.A.):

Helbidea:

Kalea / Plaza / Hiribidea:

P.K. – Herria:

Probintzia:

Telefonoa:

Helbide elektronikoa:

Faxa:

Web orria:

Azokaren koordinazioaren arduraduna:

Sakelako telefonoaren zenbakia:

Erakusgai jarriko diren produktuak eta markak:

Produktua

Marka

Produktua	Marka

Data, sinadura eta enpresaren zigilua:

Faxeiz itzuli, **943 000 267** zenbakira, edo posta elektronikoko bidez jzabaleta@camaragipuzkoa.com helbidera, **2015ko azaroaren 30a baino lehen**, transferentziaren kopia erantsita (Bankuaren egiaztagirian jarri "Enpresaren izena + Seafood Expo Global 2016")